

1995eko MAIATZAREN 25eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko maiatzaren hogeitabostean, gaueko bederatziak direnean, Alkate Ordea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkate Ordeak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

HILERRIKO ARAUDIA

Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunak, zera adierazi du:

Hilerrian egin diren obrak amaitu direnez, bere erabilerarako araudia prestatua izan da eta bere onarpenerako aurkezten da:

LIZARTZAKO HILERRIAN HILETA ZERBITZUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.-

Lizartzako Udal Hilerria zerbitzu publiko bati lotutako jabari publikoko ondasuna da eta, haren titularra Udala izanik, berari dagokio hura administratu, zuzendu eta zaintzea, bestelako agintaritza eta organismoen eskumeneko alderdietan izan ezik.

2. Artikulua.-

Hilerria eta zerbitzu osagarriak herrigunetik kilometro batetara daude, Galarra izeneko lurretan.

3. Artikulua.-

Udal Hilerriaren multzoa honela dago osatuta:

- Hilerria. Planta errektangularrekoa, $57 \times 20 = 1.140$ metro karratukoa.
- Hezurtegia-gorpuzkindegia.
- Gorputegia.

4. Artikulua.-

Udalari dagokio:

- a) Hilerria nahiz bertako eraikuntzak, zerbitzuak eta instalazioak antolatu, artatu eta egokitzea.
- b) Partikularrei baimena ematea hilerrian edozein motatako obrak edo instalazioak burutzeko, nahiz horiek zuzendu eta ikuskatzeko.
- c) Emakidak eskustea eta edozein motatako hileta eskubideak ezagutzea.
- d) Legez ezartzen diren eskubideak eta tasak jasotzea.
- e) Emandako edo etorkizunean ematen diren osasun eta higiene neurriak betetzea.

II. TITULUA

PERTSONALA

5. Artikulua.-

Hilerriko pertsonala funtzionari, lan-pertsonal kontratatu edo aldi baterako pertsonala izan daiteke, legez ezarritako terminoetan. Haren eskubideak eta betebeharrak Ordenantza honetan eta kasuak kasu aplikatzekoak diren xedapen orokorretan xedatutakoaren bidez erregulatuko dira.

6. Artikulua.-

Hilerriko pertsonalak Udaleko organo eskudunak finkatzen duen ordutegia beteko du.

7. Artikulua.-

Dagozkion lanak eta funtzioak bete eta, bere ahalmenen neurrian, formulatzen diren eskaerak eta kexuak ebatziko ditu.

8. Artikulua.-

Hilerria artatu eta zaintzea Arduradunaren esku dago. Arduradunak ondoko funtzio hauek ditu:

- a) Hileta zerbitzuetarako adierazitako orduan hilerriko ateak ireki eta ixtea.
- b) Ehorzketa zedulak sinatzea eta, aurreko atalean aipatutako lizentziekin batera, hileta zerbitzuei itzultzea.
- c) Jasotzen duen dokumentazioa artxibatzea.
- d) Hilerraren barrutia zaintzea eta antzematen dituen anomalien berri udal hileta zerbitzuetako organo erantzuleari ematea.

- e) Aipatutako organoarengandik jasotzen dituen aginduak betetzea, hilerriko zerbitzuen ordena eta antolamenduari dagokienez.
- f) Dagokion baimenik gabe, gorpuak eta objektuak hilerrian sartu edo ateratzea galeraztea.
- g) Partikularrei edozein obra egiteko Udal lizentzia aurkez dezatela galdatzea.
- h) Beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren, hobiratze, desobitze, lekualdaketa eta bestelako zerbitzuei ekitea.
- i) Hilerriko departamentu gutiak beti behar bezalako garbitasun, artapen eta ordena egoeran egon daitezen zaintzea.

9. Artikulua.-

Hilerriaren antolaketa eta funtzionamenduari dagokion guztian, Arduradun nagusia udal hileta zerbitzuetako organo erantzulearen zuzendaritzapean egongo da.

10. Artikulua.-

Ez Udalak, ez horren ezein organok, ez eta pertsonalak ere, ez dute inolako erantzukizunik beren gain hartuko hirugarrenek hilobietan eta hilerrian ipintzen diren objektuetan egin ditzaketen hondaketei dagokienez, indarrean dagoen legerian aurrikusitako kasuetatik kanpo. Halaber, nitxo edo ezurtegiren bat irekitzeko edo, partikularren eskariz, edozein desobitze egiteko unean hilerriko pertsonala ez da hilarriak edo plakak haustearen erantzule izango.

III. TITULUA

HOBIRATZEEN ERREGIMENA

I. KAPITULUA: HOBIAK

11. Artikulua.-

Gaur egun dauden panteoietarako jarraian zehazten den salbuespenarekin, hilerrian burutzen diren ehorzketa guztiak, hilerriaren barrutian dauden Udalak eraikitako nitxo prefabrikatuetan egingo dira. Salbuespen gisa halaber, ehorzketak lurrean egin ahal izango dituzte.

12. Artikulua.-

Nitxoak hurrenez hurren zerrendatuko dira eta hobiratzeko garaian ordena hori errespetatuko da.

13. Artikulua.-

Hobien gaineko hileta eskubidea 10 urteko epean eskuetsiko da, hobiratzea burutzen den egunetik hasita, eta ez da luzamendu aukerarik egongo.

Epea bete ondoren, familiakoek gorpua hurrengo hilabetearen barruan erreklamatzeko ez duten kasuan, hilerriko zerbitzuek gorpua bertatik atera eta ezurtegi amankomunera lekualdatuko dute.

14. Artikulua.-

Hobiak estaltzen dituzten hilarriak, euren ezaugarriei dagokienez, ordenantza honetan eraskin gisa azaltzen den eredura egokituko dira. Zehaztapen hori ez betetzeak, Udalari ahalmena emango dio, apaindura arrazoiak direla eta, exekuzio agindua emateko.

15. Artikulua.-

Apaindurak ezartzeko Udalaren baimena eskuratu behar da.

16. Artikulua.-

Ezarri behar diren apaindurek zer ezaugarri izango dituzten azaldu behar da Udalari egingo zaion baimen eskabideak, xedapen hauetan adierazitako eskakizunetara egokitzen direla agertaraziz.

17. Artikulua.-

Apaindurak xedapen hauetan ezarritako eskakizunetara egokitzen badira ezartzeko baimena emango du Udalak.

18. Artikulua.-

Apaindura mota hauek ezar daitezke:

- Granito Beltza izan behar du.
- Neurri hauetakoa izan behar du:

74 x 66,5 m.

19. Artikulua.-

Nitxo bakoitzean gorpu bakarrak ehorztea baimenduko da, behar bezala justifikatutako baliozkoetan izan ezik.

20. Artikulua.-

Aurreko artikuluetan adierazitakoaren kaltetan izan gabe, ezin izango da hilarririk ipini, hilerriko arduradunak bere adostasuna espreski ematen ez duen bitartean.

21. Artikulua.-

Hobiaren gaineko emakida eskubidea eskuratu ahal izateko, aldez aurretik kanona ordaindu behar izango da, horri buruz dagokion Ordenantza Fiskalak ezartzen duenaren arabera.

II. KAPITULUA: ZORROAK

22. Artikulua.-

Hilerriaren barrutian kokatutako gorpu-zorroak hartzen dituzten gelen helburua, hobi edo panteoietatik desobitu ondoren, gorpuak zaindu eta gordetzea da.

23. Artikulua.-

Zorroetarako eskubidea eman ahal izateko, aldez aurretik Lizartzako Udalari eskaera egin beharko zaio eta horrek, ebatzi ondoren, emakidaren epea eta baldintzak erabakiko ditu. Epe laburrean erabiltzeko ez badira, ez da ezurtegi emakidarik egingo.

24. Artikulua.-

Zorro bakoitzean gorpu bakarrak gordetzea baimenduko da, behar bezala justifikatutako baliozkoetan izan ezik.

25. Artikulua.-

Zorroak hurrenez hurren zerrendatuko dira eta horiek okupatzeko garaian ordena hori errespetatuko da.

26. Artikulua.-

Zorroen gaineko emakida eskubidea 23. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eskuetsiko da eta gehienezko emakida epea 20 urtekoa izango da.

27. Artikulua.-

Zorroak kanpoaldean ordenantzaren eraskinean xehekatzen den eredura egokituko den hilarriarekin estaliko dira. Aipatutako hilarria Udalak ipiniko du eskatzailearen kargura.

Eskuratu eta ipintzeari buruzko erregimenari dagokionez, aurreko 14. artikuluan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

III. KAPITULUA: PANTEOIAK

28. Artikulua.-

Hilerraren barrutiak duen azalera murriztua kontuan hartuz, ez da panteoi berririk eraikitzea baimentzen.

Gaur egun dauden panteoiei dagokienez, Xedapen Iragankorrek horri buruz finkatzen duenari jarraituko zaio.

29. Artikulua.-

Gaur egun dauden panteoiak hobiratzea bidezkoa izango da, beti ere haien barne-dependentsiek horri buruz indarrean dagoen Gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erregelamenduak finkatutako beharkizunak betetzen diren bitartean.

III. TITULUA

HILERRIAREN BARRUKO ORDENA ETA GOBERNUA

30. Artikulua.-

Hilerria Udalak finkatzen duen ordutegian egongo da irekita, urte-sasoi bakoitzaren egoeren arabera.

Ateak ireki eta ixtea eta giltzek zaintzea arduradunari dagokio.

31. Artikulua.-

- 1.- Hileta zerbitzuetako ibilgailuek eta hilerrian bertan erabili beharreko eraikuntza materialak eramaten dituztenek besterik ezin izango dute hilerrian sartu.
- 2.- Nolanahai ere, aipatutako garraio bideen jabeak hilerriko bide edo instalazioetan sortutako hondaketen erantzule izango dira eta egindako kalteak berehala konpontzera edo, hala badagokio, kalteordaintzera behartuta egongo dira. Jabea bertan ez badago, erantzukizun hori bera kaltea sortu duen ibilgailuaren gidariari berehala galdatu ahal izango zaio.

32. Artikulua.-

Gauean zehar espreski debekatuta dago ehorzketak egitea eta hilerriaren barrutian edozein motatako lanak burutzea, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik.

33. Artikulua.-

Udal zerbitzu eskudunek hilerriko artapen eta garbiketa lan orokorrak zainduko dituzte. Hilobien nahiz objektu eta instalazioen garbiketa eta artapen lanak partikularren kargura izango dira.

Partikularrek hilobiak garbitu eta artatzeko beharkizuna betetzen ez badute eta narriadura egoera antzemanaz gero, udal hileta zerbitzuek eskubide afektatuaren titularra errekerituko dute, eta hark lanak adierazitako epean burutzen ez baditu, Udalak subsidiarioki egin ahal izango ditu. Kasu horretan, kostua derrigortuengan jasanaraziko litzateke.

IV. TITULUA: HOBIRATZEAK, DESOBITZEAK ETA LEKUALDAKETAK

34. Artikulua.-

Gorpuen hobiratzeak, desobitzeak eta lekualdaketak Gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erregelamenduaren arauen arabera eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri egingo dira.

35. Artikulua.-

Hobiratzea, desobitze eta lekualdaketa guztiak, beharrezkoa den kasuan, dagozkion osasun agintaritzek luzatutako baimenarekin egin beharko dira.

36. Artikulua.-

Gorpuak dituen hilobi batean hobiratu ahal izateko hura hustutzea beharrezkoa izango balitz, eragiketa honi burutuko litzateke, hala eskatzen denean, hilobiaren titularra edo hark ordezeko jartzen duena bertan dela.

37. Artikulua.-

Titularrarena berarena ez den gorpua hobiratu ahal izateko, titulua aurkezten ez den kasuetan, titularraren adostasuna eskatuko da eta, hura ez balego, titulartasunean berori oinordetzeko eskubidea duen edonorena eskatuko da.

38. Artikulua.-

- a) Beste hilerrri batean hobiratzeko asmoz gorpu bat desobitu ahal izateko, dagokion hilobiaren titularraren eskaera beharko da, dagokion osasun agintaritzaren baimenarekin batera.
- b) Desobitzea hilerrri bereko beste hilobi batean egin behar bada, azken horren titularraren adostasuna ere beharrezkoa izango da.

39. Artikulua.-

Udal hilerrian erlijioaren edo beste edozein motatako arrazoiren ondoriozko diskriminaziorik gabe egingo dira.

40. Artikulua.-

Gorpua ezurtegi amankomunean gordailatu ondoren ezin izango da inola ere hura erreklamatu. Udalak luzatutako baimenaren bitartez, ezurtegiko gorpuak xede pedagogikoaz eraman ahal izango dira. Udalak ezin izango du aipatutako baimenik eman, interesatuak ikasketak burutzen dituen ikastetxearen eta, beharrezkoa izango balitz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Zuzendaritzako dagokion Sailaren idatzizko eskabiderik aldeztatik ez badu.

V. TITULUA: HILETA ESKUBIDEAK

I. KAPITULUA

HILETA ESKUBIDEAK ORO HAR

41. Artikulua.-

Hileta eskubideak titulu honek aipatzen dituen emakidak barne hartzen ditu. Hileta eskubideak ordenantza honetan jasotako preskripzioen eta toki kontratazioari buruzko arau orokorren arabera eskuetsi eta ezagutuko ditu Udalak.

42. Artikulua.-

Hileta eskubide guztiak dagokion erregistro liburuan inskribatuko dira eta emakidak bidezkoa den titulua luzatu bidez egiaztatuko dira.

43. Artikulua.-

Hileta eskubideak erabilera besterik ez dakar berekin eta jabari titulartasuna Udalarari dagokio soilik, Ordenantza honetako 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

44. Artikulua.-

Hilerrian dauden hobi, zorro eta panteoiak, merkataritzaz kanpoko ondasun gisa hartuko dira. Ondorioz, ezin izango dira edozein motatako salerosketa, trukaketa edo transakzioen xede izan.

45. Artikulua.-

Panteoietan instalatzen diren obra artistikoak Udalari itzuliko zaizkio emakida amaitzean. Aipatutako obrak ezin izango dira udal hilerritik atera Udalaren baimen espresurik gabe.

II. KAPITULUA

HILETA ESKUBIDEAK BERARIAZ. EMAKIDAK ETA ERRENTAMENDUAK

46. Artikulua.-

Emakidak eta errentamenduak honela eskuetsi ahal izango dira:

- a) Pertsona fisiko bakarraren izenean.
- b) Administrazio Publikoak ezagututako komunitate, erlijio elkarte edota asistentzi edo ospitale establezimendu baten izenean, horien kide, onuradun edo hartutakoek soilik erabiltzeko.
- c) Korporazio, Fundazio edo legez eratutako entitateen izenean, horien kide edo enplegatuek soilik erabiltzeko.

47. Artikulua.-

Aurrikuspen aseguruaren konpainiak eta antzekoak ezin izango dira inola ere emakiden edo bestelako hileta eskubideen titular izan. Beraz, haiek ituntzen

dituzten poliza edo kontratuen klausulek ez dute Udalaren aurrean ondoriorik izango, aseguratuei dagokion hileta eskubidea ordaintzeko beharrezko kapitala ematea ez den bestelako eskubiderik betetzeko asmoa izanez gero.

48. Artikulua.-

Udal Administrazioak luzatuko duen dagokion tituluaren bidez egiaztatuko dira emakidak.

Emakida tituluetan ondoko hauek jasozko dira:

- a) Hilobia edo zorroa identifikatuko duten datuak.
- b) Udalaren adjudikazio erabakiaren data.
- c) Titularraren izen-deiturak eta NANA.
- d) Hileta eskubideen kontzeptuan ordaindutako kopuruak.

49. Artikulua.-

- 1.- Hileta titulu bat narriatu, substraitu edo galtzearen kasuan, bikoitza luzatuko da, interesatuak aldeztatik eskaera egin ondoren.
- 2.- Hileta tituluetan antzematen diren izen-akatsak edo beste edozein motatakoak horien titularraren eskariz zuzenduko dira, aldeztatik haiek justifikatu eta egiaztatu ondoren.

50. Artikulua.-

Hobien emakidek hamar urteko iraupena edukiko dute eta luzaezinak izango dira. Aipatutako epea igaro ondoren, titularrak edo herentziaren nahiz beste edozein tituluren bidez subrogatzen diren pertsonak, aukera gisa, hilerriaren barruan, gorpu-zorroaren emakida eskatu ala gorpua ezurtegi amankomunera

lekualdatu ahal izango dute.

51. Artikulua.-

Emakida eta errentamenduetarako adierazitako epea hala ezarrita badago ere, beste edozein arrazoi dela eta, aipatutako epea amaitu aurretik hilerria itxi beharko balitz, dagozkion eskubideen titularrak kalteordaindu ahal izango dira, epea amaitzeko geratzen den denboraren arabera, nahiz eta kalteordaina kalkulatzeko ordaindutako tasaren zenbatekoa besterik ez den kontuan hartuko, errentariak edo emakidadunak exekutatutako obra edo instalazioei dagokiena aintzat hartu gabe.

III. KAPITULUA

ONEGINTZA HOBIRATZEAK ETA HOBI AMANKOMUNAK

52. Artikulua.-

Ehorzketatik eratorritako gastuei aurre egiteko inolako baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen dagozkien gorpuak hobietan hobiratuko dira. Horiek ez dira emakida edo errentamenduaren xede izango eta erabiltzeak ez du eskubiderik berekin ekarriko. 10 urteko epea igaro ondoren, gorpuak ezurtegi amankomunera lekualdatuko dira.

IV. KAPITULUA

HILETA ESKUBIDEEN GALERA EDO IRAUNGIPENA

53. Artikulua.-

Ondoren datozen kasuetan hileta eskubidearen galera edo iraungipena dekretatuko da eta dagokion emakida Udalari itzuliko zaio.

- a) Panteoiak hartzen dituen eraikuntzaren narriadura egoera dela eta, aldez aurreko txosten teknikoaren bidez deklaratu, eta titularrari hura konpondu

eta egokitzeko adierazitako epea ez betetzeagatik, aldez aurretik espedientea tramitatu eta interesatuari entzun ondoren.

- b) Eskubidea eman zeneko epeak igarotzeagatik.
- c) Dagozkion epeen barruan eskubideak edo tasak ez ordaintzeagatik.
- d) Titularrak espreski uko egiteagatik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Ordenantza honetan espreski aurrikusi gabeko alderdietan Gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erregelamenduak aurrikusitakoari jarraitu beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.- Gaur egungo behin-betiko emakidak, adjudikazioaren garaian indarrean dagoen Toki Administrazioaren emakida eta kontratuen gehienezko epeaz eskuetsizat ulertuko dira. Epe hori igaro ondoren, ordenantza honetan hobien emakidak amaitzen diren balizkorako aurrikusitako erregimena izango de aplikagarria.

Bigarrena.- Ordenantza hau indarrean jartzen denean, Gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erregelamenduak zehazten dituen beharkizunak betetzen ez dituzten panteoien titularren 3 urteko epean Lizartzako Udaletxean haiek egokitzeko proiektu teknikoa aurkeztu beharko dute. Hori egiten ez duten balizkoan, Udal Entitateak aipatutako panteoiak desjabetu ahal izango ditu.

Egokitzen obrak exekutatzen ez diren bitartean, horietan edozein motatako hobiratze burutzea debekatuta geratzen da.

AMAIERAKO XEDAPENA

Toki Erregimeneko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ordenantza hau, testua osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita 15 lanegun igaro ondoren jarriko da indarrean.

HILETA ZERBITZUAK ETA UDAL HILERRIAN EMAKIDAK EMAN ETA ERABILERA PRIBATIBOAK EMATEAREN TASAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

1. Artikulua.- XEDAPEN OROKORRAK

Udal honek, Hileta zerbitzuei eta Udal Hilerrian emakidak eman eta erabilera pribatiboak ematearen Fiskal Ordenantza Arautzailea ezartzen du, Errejimen Lokaleko apirilaren 5eko 7/1985 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenez baliaturik eta uztailaren 5eko 11/1989 Foru Dekretuaren 20tik 27rarteko artikuluekin bat etorritik, honako baldintzetan arautuko delarik:

2. Artikulua.- EGITATE EZARGARRIA

Udal hilerriko hurrengo zerbitzuei ezarriko zaie Tasa:

- a) Gorputzen eta gorpuzkien hilobiratze, leku aldatze, eta horrela zerbitzuen erabilerari.
- b) Hilobien eta gorpuzkien kaxen kontzesioari.
- d) Hildakoen osasunketa zaingorako araudiaren arabera egoki diren edo doakionaren eskabidez baimentzen diren beste edozein zerbitzuei.

3. Artikulua.- SUBJETU PASIBOA

Kontzesio edo zerbitzu eskatzaileak dira subjeto pasibo zergadunak. Kontzesio edo zerbitzu eskatzaileak eta emandako baimenaren jabeak dira zergadun moduan, subjeto pasiboak.

4. Artikulua.- TRIBUTU KUOTA

Zerga ezarpena hurrengo taulaz arautuko da:

4.1. Hilobi eta gorpuzkien kaxen baimen ematea:

- a) Hilobi erabilpena 10 urtetarako
baimen ematea 10.000,-
- b) Gorpuzkien kaxak 20 urtetarako
uztea 10.000,-

Plaka 5.000,-

4.2. Hobiratze eta desobiratze lanak:

- a) Gorpuaren hobiratzea:

Hilobian 10.000,-

Lurrean 15.000,-
- b) Gorpuaren hobiratzea panteoian 10.000,-
- d) Beste Hilerri batetara aldatzeko 15.000,-

Lurretik desobiratzea 20.000,-
- e) Gainerantzeko desobiratzeak ezer

5. Artikulua.- ZERGAREN SORTZAPENA

Aurreko atalean adierazitako zergen tasak, egindak olangatik edo

emandako kontzesio edo baimen bakoitzeko kitatuko dira.

6. Artikulua.-

- 1.- Subjetu pasiboek behar duten zerbitzuaren eskaera egingo dute.
- 2.- Zerbitzu bat eskaini edo gauzatu orduko, aurrez jakitera eman eta bere banakako kitapena egingo da. Diru bilketa Orokorren Araudiak ezartzen duen epean eta moduan, Udal Diruzaintzan ordaindu dadin.
- 3.- Hilerraren arduradun den Udal funtzionariak, aurreko artikuluan adierazten denaren ondorioetarako, hileru, tasa hau ezarri behar zaien zerbitzuen zerrenda eman beharko dio Udal Administrazioari.

Hilaren 5. eguna baino lehenago eman beharko dio zerrenda hori, argi eta garbi azaldu beharko duelarik, nork eskatu duen zerbitzu hori eta ze motatakoa den zehaztuz.

7. Artikulua.-

Ez ordaintze galerak eta honek sor ditzazkeen isunak, Foru Dekretuko Ordainketa Orokorren 77. artikulua dioenaren arabera gauzatuko dira.

Guzti hau, Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurrikusten diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra, interesatuek tarte jarri ahal izango dute errekurso Kontentzioso-Administratiboa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabetetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikuluak emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide Kontentzioso-Administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilabeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Eztabaidatu ondoren, Lizartzako Hilerrian Hileta Zerbitzuak erregulatzen dituen ordenantza eta Hileta Zerbitzuak eta Udal Hilerrian emakidak eman eta erabilera pribatiboak ematearen tasaren ordenantza fiskal arautzailea, aho batez onartuak izan dira.

GARBITZAILEAREN KONTRATAZIOA

Jose Antonio Mintegi Arrate Alkate-Ordeak, hitza harturik, zera dio:

Badira iadanik 3 urte, Udal Etxeen garbiketarako, azterketa egin ondoren, MERTXE LULOAGA ALTUNA kontratatua izan zela.

Kontratazio horren egoera legalizatu ahal izateko, eta garbitzaile horren beharra ikusten denez, kontratazio hori finkoa izatea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

Udaletxeko obrak egin zirenetik, liburutegirako, 2. solairuko gela bat zegon izendaturik.

Gaur egun, haltzariaz osatu denez, Liburutegi hori martxan jartzeko, Arduradun baten beharra ikusten da.

Hori dela eta, pertsona hori kontratatu ahal izateko, lanpostua betetzeko baldintzak aurkeztu dira, bere onarpenerako:

LIZARTZAKO UDALEKO LIBURUTEGIA ETA ARTXIBOAREN ARDURADUN LANPOSTUA BETETZEKO BALDINTZAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea, Lizartzako Udaleko Liburutegia eta Artxiboaren arduradun lanpostua betetzea da. Lanpostu honen baldintzak hauek izango dira:

Ordutegia: Beharren arabera ezarriko da.

Lanpostu honen hileko soldata, C Taldea, 8. mailari dagokiona izango da. Ordutegiaren proportzioan.

2.- EGINKIZUNAK

Ondorengoak izango dira lanpostu honi dagozkion eginkizunak:

- a) Liburuak antolatu, katalogatu eta jarraipena egitea eta horien fondoak zaindu eta zerbitzatzea. Artxiboaren antolakuntza.
- b) Udal Fondo Bibliografikoa sortzea.
- d) Liburutegira doazen pertsonak informatu eta aholkatzea.
- e) Udalerriko hezkuntzako nahiz beste motako zentroekin lankidetzan aritzea. Berriazko programak abiarazi eta suspertzearen erantzunkizuna bere gain hartzea eta erakunde ofizial eta pribatuekin bidezko harremanak izatea.
- f) Dagokion Udal-Agintaritzak eman diezaiokeen beste edozein zeregin, kontrataturiko lanari buruzko baldin bada beti ere.

3.- IZANGAIEN BALDINTZAK

Deialdian partehartzeko, zera bete beharko da:

- a) 18 urte bete izatea.
- b) Lizartzan Erroldatuta egotea, gutxienik 6 hilabete aurretik.
- d) Goi Mailako Batxilergoa, L.H. 2 edo pareko tituluren bat izatea.
- e) Euskera ahoz zein idatziz menperatzea, 3. hizkuntz eskakizunari dagokion maila.

Salbuetsirik egongo dira, lehen, 3. Hizkuntz Eskakizun maila kreditatu dutenak edo EGA edo baliokideren baten jabe direnak.

- f) Lanpostu honi dagozkion eginkizunak burutzea galerazi dezaketen gaisotasun edo ezintasun fisikorik ez izatea, beti ere Minusbaliotuen Gizarteratzeari buruzko Apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38.3 artikuluko xedapenak kaltetu gabe.
- g) Ezintasun eta beteragarritasun auzietan sarturik ez egotea.
- h) Edozein herri administrazioen zerbitzuren batetik disziplina espediente bidez kanporatua ez izana izatea, eta funtzio publikoan lana egiteko ezgaitua ez izatea.

4.- ESKABIDEAK

Oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla aitortu beharko da deialdian parte hartu ahal izateko luzatuko diren eskabideetan. Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariari luzatuko zaizkio aipatu eskabideak, eta horiekin batera curriculum vitae-a ere igorri beharko da.

Eskabideak, Lizartzako Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, agiria kaleratu eta hilabeteko epean.

5.- DEIALDIAREN GARAPENA:

Ondorengoak izango dira deialdiaren garapenean burutuko diren faseak:

- a) Partehartzaileei indibidualki bidaliko zaie jakinerazpena, zein egun, ordu eta lekuetan burutuko diren espreski azterketak.
- b) Lehen Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea, eskatzen den hizkuntz eskakizunaren froga.
- d) Lehen Ariketa egunerako, Lizartzako Udaleko Liburutegia eta Artxiboaren Antolaketarako Programa bat aurkeztu beharko da.

Bigarren Ariketa: Programa horri buruz, Elkarrizketa.

Lizartzako Udaleko Liburutegia eta Artxiboaren Arduradun lanpostua beteko baldintzak, aho batez onartu dira.

1.995 URTEKO LAN-KOMENIOA

Momentu honetan, Idazkariari, Areto Nagusitik ateratzeko eskatzen zaio, gaiak zuzenean ikuitzen diolako. Idazkari lana, Jose Antonio Mintegi Arrate Alkate Ordeak egingo du.

Honek, hitza harturik zera dio:

Eudel eta Sindikatuen artean, 1.995eko Maiatzaren 19an egindako bilkuran iritsitako adostasunaren arabera, 1.995 urterako komenioan zera planteiatzen da:
XII A.R.C.E.P.A.F.E. mantentzea.

Tabletan, 3,5% igoera.

25.000 Peztatako Paga Kontsolidatua.

Proposamen hau aztertu ondoren, Lizartzako Udalak aurreko urtetan mantendu duen politikarekin jarraitzea proposatu du; hau da: urteko IPC.aren igoera. 1.994 urtean, 4,3% izan zen.

Proposamena, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.